

«Behetik gora antolatzea baino modu hoberik ez dagoela erakutsi genuen»

Lumaltik Herriak gobernuz kanpo-ko erakundeak gonbidatuta gure-
ra etorri da Mexi-
kotik Maria de Je-
sus Patricio Martinez
Marichuy. «Hainbat lagunekin
batu naiz: Munduko Emaku-
meekin, EHUko ikasleekin...
Gazteek interes handia agertu
dute. Niretzat garrantzitsua da
Mexikon gertatzen ari dena
ezagutaraztea», kontatu digu
Donostiako Ibaetako campu-
sean elkartu garenean.

Mexikoko presidente izate-
ko lehen emakume indigena
hautagaia izan zen Marichuy,
iaz. «Hagitz kritikatu izan
nintzen. Etxera garbitzera joa-
teko erraten zidaten». Hauta-
gaitza aurkeztearen helburua
ez zen presidentetzara heltzea
izan. «Aitzaki bat izan zen he-
rrietara iristeko eta, aldi bere-
an, hedabideek fokuak indige-
nenganantz jiratzeko».

Kongresu Nazional Indige-
nak (CNI) aurkeztu zuen Mari-
chuy. Erabaki kolektiboa izan
zen, 25 estatutako 43 herri in-
digenatako 523 komunitatetan
egindako kontsultaren emai-
tza. CNI Mexikoko indigenen
koordinakunde handiena da;
bertako kide da Nazio Askape-
nerako Armada Zapatista
(EZLN) ere.

Egoera gero eta zailagoa

Mexikon egoera gero eta zaila-
goa da. «Gure herrietan gabe-
tze handia dago. Inposatzen
ari diren megaproiektuen on-
dorioz komunitateak, basoak,
ura, lurra, herrien antolaketa
kolektiboa bera amaitzen ari
dira. Hortaz, presidentetzara-

MARIA DE JESUS PATRICIO MARTINEZ «MARICHUY» MEXIKOKO PRESIDENTE IZATEKO LEHEN EMAKUME INDIGENA HAUTAGAIA

lazko hauteskundeetan parte hartzea
aitzakia izan zen herrietara iritsi eta
fokuak indigenenganantz jiratzeko.

Xedeak beteta, taldea indartua atera zen.

Maidar Iantzi Goienetxe



ko aurkeztea aitzakia izan zen
maila nazionalean problema-
tika indigena mahai gainean
jartzeko, baita herri, auzo eta
kolonia ugaritara iristea posi-
ble izateko ere, behetik parte
hartzeko gonbidapena egiteko
eta boterea hartzeko beste mo-
du bat azaltzeko, gobernua be-
hetik gora eraikitzen joateko.
Herria izateko zer egin eraba-
kitzen duena eta gobernua he-
rri antolatu horren erranak be-
tetzen dituen».

Gonbidapen hori egin zieten
herritarrei, behetik antolaketa
prozesuak eraikitzen joan dai-
tezen nekazariak, emakumeak,
gazteak... «Ados ez gauden egi-
teko moduei buelta ematen
eta berreraikitzen joan gaite-
zen. Ez zen Marichuy izan, bai-
zik eta gobernuaren kontzeptu
indigena bat».

Garrantzitsua izan zen herri
indigenak baztertuak, diskri-
minatuak, ahantziak, abando-
natuak daudela ikusteko, are
gehiago emakumeak. «Biga-
rrren edo hirugarren mailako-
tzat hartzen gaituzte. Horrega-
tik erabaki zen emakume
batek hartzea ahotsa. Hala
emakume gehiago gonbida-
tzeko, erakusteko parte har de-
zakegula eta gure herriak or-
dezka ditzakegula».

Garaipena izan zen

Balorazio ona egiten dute,
nahiz eta Gobernuak erran-
galdu egin zutela, porrot egin
zutela, herritarrek ez zutela
emakumerik nahi, are gutxia-
go indigenarik. «Gure balan-
tzean xedeak lortu genituela
baieztatu genuen: ez genuen
galdu, irabazi egin genuen. Al-
de batetik, indigenen arazoak
plazaratu genituen; bestetik,
herriz herri, auzoz auzo behe-
tik antolatzea baino modu ho-
berik ez dagoela erakutsi ge-
nuen. Guretzat garaipena izan

zen 32 estatuetatik 29tara hel-
tzea. Beren arazoak hurbiletik
aditzea eta eurek prozesu ho-
netako gure asmoa entzutea.
Elkarren kontra jarri gaituzte.
Ahantz ditzagun alderdiak, hel-
diezaiogun gure antolaketa
propioari aurrera ateratzeko».

Talde handia

Hauteskundeetan testuingu-
ruan laguntza sareak osatzen
joan ziren. «Gazteak, emaku-
meak, adinekoak, gizonak...
Azkenean, denen artean, talde
handia ginen. Ez ginen herri
indigenak soilik. Hirian kide
gehiago zeuden, proposamena
bere egin zutenak».

Talde horiek biltzen jarrai-
tzen dute. «Bakoitzak bere le-
kua du, bere modua eta den-
bora, baina zerbait ezberdina
nola eraikitzen joaten ahal ga-
ren aztertzen ari dira eta hori
nahi genuen».

CNIren asanblada

2019ko irailaren 5etik 7ra Kon-
gresu Nazional Indigenaren
eta erresistentzia eta errebel-
dia sareen asanblada izan zen,
nazionala eta nazioartekoa.
Binniza de Juchitan hirian
egin zen, Tehuantepec istmo-
an. Mexikoko herri indigenen
500 ordezkariarik gora bildu zi-
ren; 107 elkarte eta kolektibo,
10 hezkuntza instituzio eta 22
hedabide libre.

Gertatzen ari den guztiaren
aitzinean eta megaproiektue-
kin okertzen ari den egoeraren
aitzinean zer egin aztertu zen.
«Ikusten da elkarlana ezinbes-
tekoa dela, baina bakoitza da-
goen tokian egonda. Hainbat
ekintza adostu ziren».

«Garrantzitsuena da nola jo-
anen diren indartzen dauden
lekuetan, nola joanen diren
lantzen antolaketa. Hor egiten
dugu apusturik handiena,
dauden lekuetatik antolatzen

ez badira beti eroriko garelako ekintza batzuetan: errepide bat gelditu behar dela, planto egin behar dela... Hori ere parte da, baina inportanteena beste antolatzeke modu berri bat eraikitzen joatea da, behe-tik, gauden tokitik. Emakume, ikasle, irakasle, abokatu, mediku... Diseinatua dagoen moduarekin ados ez bagaude, nola egingen dugu lan horri buelta emateko? Alternatiba horrek tokian bertan jaio behar du, leku bakoitza ezberdina baita», defendatu du.

Errepresioa, gora

Kongresu Nazional Indigenako 117 kide hil dituzte gutxienez 1996an erakundea sortu zene-tik. Megaproiektuen inposake-tarekin lotutako hilketak dira. «Herri indigenek ez dute mea-tzerik, gasbiderik, eolikorik, hidroelektrikorik, tren maiarik inposatzerik nahi. Hala erran dute eta manifestazioak egin dituzte. Eta manifestazio ho-rietan hil egin dituzte, edo de-sagerrarazi, edo kartzelan sar-tu. Errepresioa handitu da».

Marichuyk baieztatu due-nez, Mexikon gerra deklaratu dute lurra defendatzeko elkar-tu diren eta antolatzen diren herrien kontra. «Isilik egon be-har dugula erraten digute, gu-re herrietatik aberastasuna eramaten duten bitartean».

Badaude hegoaldean komu-nitateak beren lurraldean abe-rastasuna dagoela jakinik, ho-rretaz jabetzeko lekualdatu dituztenak. «Petrolio edo ura izan daiteke. Gabetzea handi-tzen den neurrian handitzen da errepresioa ere. Eta ez dute bertan biztanlerik nahi».

Istmoan egiten ari diren me-gaproiektuetako baten bultza-tzaileetako bat Iberdrola da. «Onuradun bakarra enpresa izan da; herriei lurren kutsa-



Argazkiak: Juan Carlos RUIZ | FOKU

Ibilbidea Gaztea zenean **mutilek soilik dantzatzaren zuten dantza tradizional batean** parte hartzeko pausoa eman eta bidea ireki zien bertze neskei. Joan den urtean, presidentetzarako hautagai aurkeztu zuen Kongresu Nazional Indigenak (CNI).

dura baizik ez die utzi. Lur ho-riek jada ezin dira erein. Heli-ze batzuk etxeko patioetan ja-riak daude eta hain dira handiak ezen batzuetan etxe-en gainean erortzen baitira. Jendeak ez ditu nahi, baina ge-ro eta gehiago dira».

Jendea antolatzen ari den le-kuak militarizatzen ari dira. Chiapaseko Chicomuselon erresistentzia dago meatzea-ren aurka eta herrialdeko base militarrik handiena eraiki du-te megaproiektua zaintzeko.

Gaztetatik

Gaztea zenean, Marichuy gizo-nek soilik parte hartzen zuten dantza tradizional batean dan-tzatzen hasi zen. «Ikusten ni-tuen eta dantzatu nahi nuen. Aitak erraten zidan ez atera-

tzeko, baina musika entzunez, inork ikusi gabe, pausoak egi-ten nituen. 'Joan zaitez, baina motel bazabiltza atera egingo zaitut!', erran zidan azkenean aitak. Baina ez nintzen okertu. Mutilek tinko zapaltzen zuten, eta nik ere bai», oroitu du.

«Ahulak ginela zioten, kasik ez zela aditzen gure pausoa, baina azkenean onartu zuten. Ordutik dantzan jarraitu nuen eta orain emakume aunitzek dantzatzaren dute. Bada dantza bat emakumeena soilik».

Zapatistek, 25 urte

Altxamendu zapatistatik 25 urte igaro dira. «Eredu dira gu-re herrientzat, batez ere anto-lakuntzan. Indartzen eta haz-ten joan dira, gizon-emakume gehiago dira orain. Karguak

soldatarik gabe hartzen dituz-te, kargu kolektiboak dira, txandakatu egiten dira. Ho-rrek indarra eman dio antola-kundeari hegoaldean. Eta ipa-rralderago dauden gure herriak motibatu ditu. Indar kolektiboa hainbeste hazi da, ezen ez baitago ekonomikoki Gobernuaren mende. Euren eredia hartzen ari gara».

«Eurek egin badute, guk zer-gatik ez? Lurra, basoak, ura... ditugu. Antolatzea da kontua», erantsi du.

Antolakuntza horretan ema-kumeen partaidetza gero eta handiagoa da, bereziki Chiapa-sen, kide zapatistekin. Koope-ratibetan antolatzen ari dira, beren artean babesten, eta motorra dira bertze herrietako emakumeentzat.